

RANKING LEPM ETA MASTER LEPM ARAUDIA

I. XEDEA

Araudi honen xedea “Ranking LEPM” eta “MASTER LEPM” deituriko txapelketen erregulazioa ezartzea da.

II. RANKING LEPM

1.- Denboraldi, LEPM-k sailkapen edo ranking bat aurkeztuko du Aspe Pelota eta Asegarce Pelota enpresetan kontratua indarrean duten pilotariek, zein honako txapelketa hauetan parte-hartu edota puntuak irabazi dituzten:

- i. Lau t´erdiko Txapelketa (1. maila)
- ii. Lau t´erdiko Txapelketa (Promozioa)
- iii. Binakako Txapelketa (1. maila)
- iv. Binakako Txapelketa (Promozioa)
- v. Buruz buruko Txapelketa (1. maila)
- vi. Buruz buruko Txapelketa (Promozioa)
- vii. Nafarroako Lau t´erdiko Txapelketa
- viii. San Fermin Torneoa
- ix. Bizkaia Torneoa
- x. Donostia Torneoa
- xi. Andra Mari Zuria Torneoa
- xii. Zarautz Torneoa
- xiii. Bilbo Torneoa
- xiv. Lekeitio Torneoa
- xv. San Mateo Torneoa

2.- LEPM sailkapena 2016ko Lau t´erdiko Txapelketarekin hasiko da, azken hori barne.

3.- Denboraldiaren jardunean LEPM-ek lehiatuko liratekeen txapelketa eta torneo berriak txertatu ditzake eta hauek araudi honetan adierazitako ranking edo sailkapenean gehitu eta zenbatuko litezke. Torneo eta txapelketa berrien txertatzearen erabakian, hauei emango zaien puntuazioa ere zehaztu beharko da Araudiaren Eranskinetan integratuz.

III. LEPM SAILKAPENAREN EGITURATZEA

1.- Araudiko aurreko artikuluan aurreikusitako txapelketa edo torneoetan lortutako sailkapenaren baitan emango zaizkie puntuazioak parte hartzaileei.

2.- Aipatutako txapelketa eta torneoetako parte hartzaileen sailkapenagatik emandako puntuazioak Araudiaren Eranskinen azalduko direnak izango dira.

3.- LEPM-eko Ranking-a zerrenda bakar baten bitartez egituratuta egongo da non bi enpresetako pilotariak izango diren barne, atzelariak zein aurrelariak.

4.- Txapelketa edo torneo bakoitzaren amaieran LEPM-ko Ranking eguneratuko da. Modu horretan, Ranking-a bilakatzen joango da aipatutako

txapelketa eta torneoak lehiatzen diren heinean aurreko urteko puntuazioak ezabatuz behin egungo denboraldiko txapelketa berdina bukatu denean. Denboraldi zehatz batean ez bada txapelketa edo torneo bat jokutzen, aurreko edizioari dagozkion puntuazioak ere ezabatuko dira LEPM-ko Ranking behin urte bat igaro dela haren amaieratik.

5.- Txapelketen kasuan, pilotariak txapelketa horietan parte hartutako guztietan lortuko dute puntuazioa.

6.- Torneoen kasuan berriz, pilotariak gehienez 6 torneoetako puntuazioa gehitu ahal izango dute, jokaturako guztien artean puntuazio gehien lortu dutenen arteko gehiduratik alegia. Beste torneoetan lortutako gainerako puntuazioak ez dira kontuan hartuko sailkapenerako.

IV. MASTER LEPM: PARTE-HARTZAILEAK

1.- Urtero Urrian ospatuko da “Master LEPM”.

2.- Honako pilotariak edukiko dute eskubidea “Master LEPM”- en parte-hartzeko:

- a) “Ranking LEPM” Sailkapenean hobekien sailkatuta dauden pilotariak, hauek atzelariak izanik.
- b) “Ranking LEPM” Sailkapenean hobekien sailkatuta dauden pilotariak, hauek aurrelariak izanik.
- c) Wild Card-a edo gonbidapena jasotzen duen aurrelari bat eta atzelari bat. LEPM-ko Kirol Batzordeari dagokio Wild Card edo gonbidapena ematea kirol emaitza edota beste egoera zirkunstantzialak aintzat hartuz.

3.- Pilotariaren atzelari edo aurrelari izaera denboraldi bakoitzaren hasieran ezarriko da torneo eta txapelketetako partiduetan zehar jokaturako postu ohikoenaren baitan.

4.- “Master LEPM” -eko bikote parte-hartzaileak honela egituratuko dira:

Bikotea	Aurrelaria	Atzelaria
A	LEPM Ranking-eko 1. postua	LEPM Ranking-eko 1. postua
B	LEPM Ranking-eko 2. postua	LEPM Ranking-eko 2. postua
C	LEPM Ranking-eko 3. postua	LEPM Ranking-eko 3. postua
D	Wild Card edo Gonbidapena	Wild Card edo Gonbidapena

5.- “Master LEPM” lehiatzeko sailkatua dagoen pilotari bat ezindua badago jokatzeko, bere postua kondizio berdineko (aurrelari edo atzelaria) pilotariak hartuko du, zein LEPM Ranking postu hoberena edukiko duen. Kasu horietan, hasieran sailkatutako pilotariari ordezkaturako dionak bere postua hartuko du zuzenean, hau da, ez da aldatuko bikoteen egituraketa Araudiko artikuluan aurreikusitakoa aintzat hartuz. Modu berberean eramango litzake aurrera prozesua pilotari baten “Master LEPM”-en parte-hartzeko ezintasuna txapelketa hori hasi ondoren suertatzen bada.

V. MASTER LEPM: FORMATUA

1.- “Master LEPM” honako formatuarekin lehiatuko da:

- Bi finalerdi, non hauek zozketa bidez ezarriko dira Txapelketaren aurkezpenean.
- 3. eta 4. postuko partidak.
- Finala

2.- “Master LEPM”-eko datak eta egoitzak bere denborarekin emango dira jakitera.

VI. AMAIERAKO XEDAPENAK

Araudi honen edukiaren inguruan sor daitezkeen gatazken ebazpena, bai interpretazio kontuengatik, baita plazaratutako kontu zehatz baten aurrean xedapen falta egonagatik, LEPM-eko Lehiaketako Epaile Bakarra-ren baitan egongo da eta bere erabakia apelaezina izango da.

ERANSKINAK: RANKING LEPM-eko PUNTUAZIOAK

TXAPELKETAK

Buruz Buruko Txapelketa (1. maila)	
Txapelduna	1000
Txapeldunordea	600
3. sailkatua	450
4. sailkatua	400
Final 1/4	180
Final 1/8	90
Final 1/16	45

Buruz Buruko Txapelketa (Promozioa)	
Txapeluduna	300
Txapeldunordea	180
3. sailkatua	135
4. sailkatua	120
Final 1/4	54
Final 1/8	27
Final 1/16	14

Lau Terdiko (1.maila)	
Txapelduna	800
Txapeldunordea	480
3. sailkatua	360
4. sailkatua	320
Final 1/4	160
Final 1/8	70
Final 1/16	35

Lau Terdiko (Promozioa)	
Txapelduna	240
Txapeldunordea	144
3. sailkatua	108
4. sailkatua	96
Final 1/4	48
Final 1/8	21
Final 1/16	10

Binakako Txapelketa (1.maila)	
Txapelduna	400
Txapeldunordea	240
3. sailkatua	120
4. sailkatua	80
Finalerdiak	100(*)
Sailkapenerako ligaxka	50 (*)

Binakako Txapelkete (Promozioa)	
Txapelduna	120
Txapeldunordea	72
3. sailkatua	36
4. sailkatua	24
Finalerdiak	30(*)
Sailkapenerako ligaxka	15 (*)

TORNEOAK

LEPM 300	
Txapelduna	300
Txapeldunordea	180
Finalerdiak	60 y 10(*)
Final 1/4	30
Final 1/8	20

LEPM PROMOZIOA 100	
Txapelduna	100
Txapeldunordea	60
Finalerdiak	20 y 5(*)
Final 1/4	10
Final 1/8	5

LEPM 200	
Txapelduna	200
Txapeldunordea	120
Finalerdiak	40
Final 1/4	20
Final 1/8	12

LEPM 100	
Txapelduna	100
Txapeldunordea	60
Finalerdiak	20
Final 1/4	10
Final 1/8	5

(*)Irabazitako partiduengatik gehigarriak